



editoriala

Asko ta asko dira egundaino planteatu ezik, herri amerikanoaren zati haundi baten benetazko egokera ta kinka ezagutzen ere ez zutenak, eta orain, Ernesto Guevara'ren heriotzak beren konzientzian astindu ditunak.

Egundaino, aunitzenezta Amerika ta "El Dorado" batbera ziran, Amerika altxorrez oparo ornitutako lurraldea zan, lurralde ioria, aberatsa, biziltz eroso ta errezakoa, dirua egiteko toki aproposa, bertara joan ezkeru, bueltakoan diruz gainezka itzuli ohi zanekoa (itzultzen zanean, noski!).

Orain, bapatean, jakiten du jendeak Arjentina krisis ekonomikoan dabilleta, Brasil'en ba dirala giza aurrerapenean oso motx eta baldar doazen lurraldeak (subdesarrollatuak), nazio barru bertako beste zenbaitetan dirua lujo ta alpergastatze amorratuan botatzen dan bitartean. Nundik edo handik entzuten du jendeak Bolivia'n, Venezuela'n, Colombia'n eta Peru'n gerrillazko erreboluzioak errealidade dirala. Beste zenbait Egoamerikako lurraldeetan, hots, Paraguay, Nicaragua, Honduras eta Panama'n, nahiz gaur gaurkoz erreboluzioa menperatua ta eutsia egon, ba dirala, ordea, arazoak, ezbeharrak ezin egona (ezin eutsia, hobe) sortzen dutenak eta herri hauek erreboluzioaren ataurrean jartzen dituztenak. Eta berdintsu gertatzen dala, orobat, Dominica'ko errepublikan eta Haiti bertan, nun Duvalier presidenteak diktadura hertsia ren menpean mantentzen eta manatzen duen herria, bere hain ezagunak diran "tontons macoutes"-etaz baliatuaz.

Egun guban delimitatzen dijoan Amerika Latina'ren ikuspegiak life-rentzia koskor ez nolana hizkoak ditu zenbaitek orainartean —eta orain bertan— beren gisara tajutua zeukatenarekin —eta daukatenarekin—.

Guevara'ren heriotza deadar bat, karraxi bat, ohiu bat da kristau kon-

zientzi aunitzentzat. Egia, errebista katoliko batzuek bandidotzat salatu dutela, esanez ez duela inñolako aipamenik merezi. Gu, ordea, ez gatozkio ados era hontako iritzi "bakun" bati. Zerbait da gertatzen Amerika lurraldean, gizonak hain postura desesperatuak hartzen dituzteneko. Ta kristaun eginkizuna dugu gertatzen ari dan hori aztertzea, herri haiek minberatu ta larritzen dituan gaitzen kausa politiko, ekonomiko ta sozialak desestaltzea.

Hirugarren munduko 18 gotzaiek eskeiñi berria diguten dokumentoak ba du puntu honetan reflexio gai prankorik guretzat. Dokumento honen lerrotan nabarmentzen da konsideramendu osoa merezi duen gizarte atal baten subdesarrolloak sortzen duen gaurko situazio larria eta kristau konzientziari planteatzen dizkion kuestio ta prolemen zailla.

Ez dugu gai ta arazo guzti hauetaz "JAKIN" bat prestatzerik izan behar hainbateko dokumentazioz. Beste batean, apika, itzuliko gera gai hontara. Egungoz, Nacahuazu mendietan ixuri dan odolak eskeintzen digun kinka aprobetxatuaz, Amerika Latinoaren prolema planteatu nahi dugu, lerro apur hauetan.

Uste dugunez, Saizarbitoria, R. Arregi, J. R. Beloki ta Karlos Santamaria'ren artikuloak laguntza bat izanen dira irakurle zenbaitentzat beren ideia garbiketa edo zuzenketan eta, baitipat, bere istante honetan garrantzi guztizko duten eginkizun eta eginbeharraren konzientzi hartzean. Gizonek eta Herriek subdesarrolloaren prolemaren aurrez aurre duten elkartu beharraren eta indar guztiak martxan jarri beharraren eginbeharra, hoi'en artean, baita ere, kristau indarrak, Elizarenak, herri hoi'ek bide gizakoia-goak eta bidezkoagoak arki ditzaten.

JAKIN